

ERRABAL
J | A | Z | Z

**Joaquín Chacón
& Mariano Díaz**
featuring Dave Liebman, Javier Colina,
Perico Sambeat, Mario Rossi, Guillermo McGill
Skytrain



94 PK. 20590 SORALUZE
Tel: +34 943 753 016
Mail: errabal@hotsak.com
www.hotsak.com/Errabal
www.errabaljazz.com

Errabal (ER-067)
2013
CD

Azken urteotan ikusten ari gara nola estatuko Jazz bere adin nagusira iristen ari den.

Gero eta gehiago dira argia ikusten duten jatorrizko musika proiektuak, eta nazioarte mailan gero eta ezagunagoa eta estimatuagoa da gure jazz, eta ez soilik jazzaren interpretarien mailagatik, baizik eta baita jazzaren sortzaile eta musikarien mailagatik ere, halako freskotasuna eta originaltasuna ekartzen baitizkiote musika genero honi.

Joaquín Chacón gitarrajotzaileak eta **Mariano Díaz** piano jotzaileak, elkarrekin urte asko lan egin ostean, penintsulako jazz musikarien arteko sinergiak bila dituen proiektua gauzatu dute oraingoan, Nazioarteko interpretari eta aldi berean sortzaile handien ekarpenekin, gure-gurea den jazzari beste ikuspuntu bat emateko eta Nazioartean zabalkunde handiagoa izateko. Hasi eta buka jatorrizkoak diren lanekin osaturiko erreperitorioarekin, DAVE LIEBMAN saxo jotzaile iparramerikar handiaren ekarpenarekin eta lehen mailako musikari espainiarren lan bikainaren ekarriarekin osatua.

“SKYTRAIN” erreperitorioak, (Errabal Jazz), Mariano Díaz eta Joaquín Chacónen jatorrizko konposizioak biltzen ditu, egun puri-purian dabilen Jazz garaikidearen ildoan.

Betiere nire interesa pizten du Dave Liebman bezalako musikari batek esku hartzen duen albumaren grabazioak. Gainera bikoitza da interesa albuma adiskideek eta lagunek (Mariano eta Joaquín) ondua baldin bada. Ugari dira arrazoiak, baina batek musika honen protagonistak ezagutzen dituen berehala agertzen da batasun honek zer bide egingo duen ikusteko jakin mina.

Orain urte batzuk mintegi batean ginela, Pat Methenyri galdetu nion nola bizi izan zuen Jack

DeJohnette bezalako musikari erronka jotzaile eta konplexuarekin lehenengo aldiz jotzeko esperientzia, eta Patek erantzun zidan esanez horrelako egoera baten aurrean batek musikari hori aztertzeko eta ezagutzeko ardura duela. Eta nik gehitzen dut gonbidatu hau, azken batean, gonbidatu guztiz berezia dela, gustura sentiarazi beharreko bat dela, bere onenetik abegi on hori, musikalki hitz eginez, itzultzea espero den bat dela.

Beraz, erabakigarria da erreperitorioa. *Skytrain* lana jatorrizko konposizioek osatuta dago erabat. Hiru estilo taldetan bana liteke, eta guztietan trebeki ari da Liebman. Alde batetik, *post-bop* esan genezakeen moldeko gaiak ditugu, “Energy Thieves” bezalako piezak. Bestetik, rock eta funk moldeetara gehiago hurbiltzen diren gaiak daude, esate baterako, “Skytrain” eta azkenik, konposizio ilunagoak, “Gris” adibidez, Richie Beirachekin izandako kolaborazioak gogorarazten dituen.

Gai hauek grabatu zituzten saioan egoteko zortea izan nuen. Giroa, bizia benetan. *Break*-etan, eta pizza tarteko, luzaz mintzatu ginen musikaz eta musikariez. Gogora datozkit Davek George Cables pianista handiari egin zion gorazarrea eta Elvin Jonesekin grabatu zuen album onenetako bati, apenas ezagutzen den “Earth Jones” lanari, Kenny Kirkland piano jotzaile zuela, eginiko aipamena. Grabatzeko garaian dena zen indarra, eman ahala ari izan ziren denak, eta hori une oro entzun eta hautematen da.

Gero bigarren saio bat izan zen, Perico Sambeatek hartu zuen saxo jotzailearen lekua, eta Mario Rossyk Javier Colinarena kontrabaxuan (saio bietan Guillermo McGill izan zen bateria jotzailea). Albumaren ildo estilistikoak ez zuen aldaketarik ezagutu, eta emaitza era berean bikaina izan zen. Erraz azaltzen da: musikari bakoitzaren balioa handia izateaz gainera, “aspaldiko lagunen” aurrean gaude, kode komunak dituzte, ohituta daude era askotako musika proiektuak partekatzen.

Ondorioz, kalitate, freskotasun eta originaltasun handiko albuma da honakoa, eta ez dut zalantzarik egiten entzuleen gustukoa izango dela.

Guillermo Bazzola. Madril, 2013ko urriak 21

ERRABAL
J | A | Z | Z

**Joaquín Chacón
& Mariano Díaz**
featuring Dave Liebman, Javier Colina,
Perico Sambeat, Mario Rossi, Guillermo McGill
Skytrain



94 PK. 20590 SORALUZE
Tel: +34 943 753 016
Mail: errabal@hotsak.com
www.hotsak.com/Errabal
www.errabaljazz.com

Errabal (ER-067)
2013
CD

AZALPEN BIOGRAFIKOAK

DAVE LIEBMAN

Bob Mosese bultzatuta hamalau urte besterik ez zituenean eskaini zituen aurreneko emanaldiak. Gero, jendaurreko emanaldiak bazter utzi gabe, eskola partikularrak jaso zituen Charles Lloyd eta Lennie Tristano musikarien eskutik. 1968. urtean ekin zion bere ibilbide profesionalari, eta Pete La Roca, Steve Swallow eta Chick Corea biltzen zituen taldeko kide bihurtu zen luze gabe. Lehenengo grabazioa Terumasa Hinorekin egin zuen, baina gero berriro ere itzuli zen John McLaughlinengana (1970) "Ten Wheel Drive" taldearekin bat egin baino lehen; talde berera bilduko ere zen Pee Wee Ellis.

1970. urte hasieran Elvin Jonesen taldearekin joko zuen behin eta berriz, baita Joe Farrell, Steve Grossman, Frank Foster eta beste batzuekin ere. Bestalde, Miles Davisekin grabatu zuen (1972). 1973 eta 1974 bitartean, Liebman taldeburu gisa bere diskoak grabatzen hasi eta Bob Moses eta Abbet Lincolnekin batera jardun baino lehen, bira bat egin zuen Davis lagun zuela. 1976. urtean San Frantziskon (Kalifornia) hartu zuen bizilekua, eta jazz funk estiloari emana zen Pee Wee Ellisen taldearekin jardun zuen, baina 1977an berriro ere bat egin zuen Chick Corearen taldearekin. Pixka bat geroago New Yorkera egin zuen Ron McClure eta John Scofield artistekin jotzeko, eta bira bat egin zuen Europar barrena (1979-1980).

1980. hamarraldian "Quest" taldeko kide bihurtu zen Liebman besteak beste Eddie Gomezekin batean, baina ez zion horregatik bere taldearekin hainbat jaialditan jotzeari utzi. 1990. urteetan, berriz, musikari europar askorekin jo zuen, esate baterako, Joachim Kühn, Daniel Humair, Paolo Fresu, Jon Christensen eta Bobo Stenson artistekin.

Liebmanek luzatu egin zuen Coltranek bila zuena hots liriko eta bikainaren bidez, saxo sopranoan espezializatu zen, eta erregistro meheak eta oso meheak modu nabarmenean baliatuko zituen erritmo konplexuak eta isiluneak egokiro batuz. 1973. urteaz geroztik Down Beat aldizkari espezializatuaren pollsen postu goienetan ageri ohi da soprano gisa.

MARIO ROSSI

JORGE ROSSI anaiarekin batean, tokiko JAZZak Nazioartean duen talde erritmiko aipagarrienetakoa osatzen du. Bartzelonako Taller de Musics ikastegian ikasi zuen 80. urteetan, eta Jazzaren generoko handiekin batean jardun du, esate baterako, BRAD MEHLDAU eta ART FRAMER artistekin, besteak beste. Sideman handia izateaz gainera, egun irakaslea da ESMUC ikastegian.

JAVIER COLINA

Kontrabaxu jotzaile **Javier Colina** (Iruñea, 1960) 90. urtean hasieran hasi zen jazz flamenko deitu moldeko kontzertuetan eta grabazioetan nabarmentzen. **Chano Domínguez** eta **Guillermo McGill** musikariarekin batean piano jotzaile cadiztarraren hirukotea osatzen du, eta talde honekin parte hartu du mundu osoko jazzaldietan eta zuzendaria **Fernando Trueba** duen *Calle 54* filmean.

Eskarmentu handiko musikariarekin batean, esate baterako, **George Cables**, **Hank Jones**, **Barry Harris** eta bereziki **Tete Montoliú**

artistarekin batean eskaintako kontzertuek eta grabazioek egiaztatzen dute Javier Colinaren jazz alorreko prestakuntza.

Era berean, **Tomatito**, **Duquende**, **Enrique Morente**, **Joaquín Cortés**, **Ketama** eta beste batzuekin eskaintako emanaldiek eta grabazioek bermatzen dute haren kontrabaxuak flamenkoari egiten dion ekarria.

Gainera nabarmentzekoak dira Maliko musikariarekin eginiko musika topaketak, horien artean aipagarri koraren maisu **Toumani Diabaté**, harekin grabatu baitzuen bere Djelika diskoa.

Geroago bat egingo zuen **Juan Perroren** proiektuekin. Honek eragin handia izango zuen Colinaren ikuspuntuan eta esperimertzioaren alorrean, batez ere pop, rock eta son kubatarraren esparruetan.

Fort Apache Band taldearekin eskaini zuen birak harrotzen du bereziki, taldeburu **Jerry Gonzalez** tronpeta eta konga jotzailearekin batean jazz eta musika latino nahastean dituen talde onenetakoa baita. Colinak Jerry Gonzalezekin elkarlanean jarraitzen du beste proiektu askotan.

Calle 54 filmaren aurkezpen ekitaldian aurreneko aldiz jo zuen **Bebo Valdés** piano jotzailearekin. Geroago kontzertu bat eskaini zuten Madrilgo Albéniz Antzokian, eta Diego 'El Cigala' deituak parte hartu zuen hartan. Une horretatik aurrera nazioartean proiektzio handia izango zuen **Lágrimas Negras** diskoaren grabazioa hiru zutarrietako bat bihurtu zen Javier Colina. Ondorioz, kontzertuak eta aurkezpenak egin zituen **Bebo Valdés**, **Chucho Valdés** eta 'El Cigala' lagun zituela. Aldi berean, emanaldi batzuk eskaini zituen bikotea osatuz eta laukotea osatuz **Bebo**ekin batean.

Hiru urte joan dira bere disko **Si te contara** kaleratu zenetik. Bertan Pancho Amaten ezinbesteko partaidetza hauteman daiteke tres kubatarrean; **Juan Perrorekin** lanean ari zela ezagutu zuen. *Ezohiko zazpikote* honek jazzaren espirituan oinarritutako musika proposatzen du son kubatarraren erritmoan. Talde hau arrakastatsu aurkeztu da besteak beste Donostiako eta Madrilgo nazioarteko jazzaldietan

2005eko azaroan aste betez jardun zuen New Yorkeko "Village Vanguard" jazz klub ospetsuan, Bebo Valdésekin bikotea osatuz. **Fernando Truebaren** zigilu *Calle 54*-k "Bebo Valdés & Javier Colina live at the Village Vanguard" diskoa argitaratu zuen, eta 2008ko **Grammy latino**a saria jasotzeko izendatua izan zen.

Berriki kaleratu da "Andando" diskoa, Perico Sambeat eta Marc Miraltarekin batean osatzen duen hirukotearekin argitaratutako bigarrena.

2013ko hondarrean argitaratu du "Skytrain" lana. Bertan Dave Liebman eta Perico Sambeat bezalako musikari handiekin batean jarduten du.

PERICO SAMBEAT

1980. urtean hasi zen saxoa bere kabuz ikasten. 1982an Bartzelonara jo zuen, eta bertan amaitu zituen flauta klasikoaren ikasketak Taller de Músics ikastegian harmonia eta moldatze lanak ikasten zituen

ERRABAL
J | A | Z | Z

**Joaquín Chacón
& Mariano Díaz**
featuring Dave Liebman, Javier Colina,
Perico Sambeat, Mario Rossi, Guillermo McGill
Skytrain



94 PK. 20590 SORALUZE
Tel: +34 943 753 016
Mail: errabal@hotsak.com
www.hotsak.com/Errabal
www.errabaljazz.com

Errabal (ER-067)
2013
CD

artean Zé Eduardo maisuarekin. Mundu osoko jaialdi eta klubetan jo du. 1991n New Yorkeko New School ikastegira joan zen eta bertan LEE KONITZ, JIMMY COBB, JOE CHAMBERS eta izen handiko beste artistekin jotzeko aukera izan zuen. Bestalde, STEVE LACY, DANIEL HUMAIR, FRED HERSCH, BOB MOSES, LOUIS BELLSON, JIMMY COBB, BOB MINTZER, MARIA SCHNEIDER eta beste artista batzuekin lan egin du.

JOAQUÍN CHACÓN

El guitarrista y compositor Joaquín Chacón pertenece a una generación de músicos surgida en los años ochenta al amparo de las primeras escuelas de jazz aparecidas en España y de la eclosión cultural que en esta década dio como fruto una gran profusión de festivales, clubes y programaciones en teatros en torno a esta música.

Nacido en Madrid en 1962, desde niño recibió influencias musicales flamencas de su padre. Atraído desde muy pronto por el Jazz, tras estudiar en el Conservatorio de Madrid cursó estudios en las primeras escuelas de Jazz existentes en Madrid y Barcelona. Además de asistir a importantes seminarios internacionales, completó sus estudios en Holanda y Alemania, donde tuvo como profesores a músicos de la talla de John Abercrombie, Dave Liebman, Joe Henderson, Barry Harris, Bruce Forman, Richie Beirach y Jerry Bergonzy, y un largo etc.

Sus primeras experiencias profesionales le vinculan a algunos de nuestros músicos más importantes y representativos, así como a grupos ya legendarios de la escena del jazz Madrileño. En el grupo "Neobop" colabora durante mas de dos años junto a Javier Colina y Chano Domínguez, y en "Solar" coincide con el saxofonista y clarinetista Danés Uffe Markussen, con el que desarrolla una intensa colaboración en España y con el que actúa también en importantes formaciones de Escandinavia.

Después de esas experiencias y de varios años de rodaje, se decide a formar su propio grupo que llevará su nombre, al mismo tiempo que acepta trabajos para tocar y grabar discos para diversas formaciones, siempre al lado de importantes figuras internacionales:

Jim Snidero, Bobby Floyd, Mike Richmond, Billy Hart, Al Foster, Kevin Hays, Keith Copeland, Uffe Markussen, Ben Stivers, Pedro Ruy Blas, Bobby Floyd, Perico Sambeat, Jorge Pardo o Doug Raney. De este modo Joaquín ha tenido la oportunidad de actuar con su propia banda o con otras formaciones, en la mayoría de festivales de jazz de España, así como en varios de Alemania, Holanda, Dinamarca, Noruega, Marruecos, Túnez, Egipto, Líbano, Jordania, Angola, Zimbabwe, México, Corea, Vietnam, etc.

En sus veinticinco años de carrera, su gran talento como guitarrista y compositor han quedado reflejados en una gran variedad de trabajos discográficos propios (nueve hasta la fecha) y de otros artistas: **Well be together** y **Crisis** (RNE), **Primer encuentro** (Iberofón), **Dentro** (Nuba Records), **Blue sax jazz** (Universidad de Málaga), **Música de los elementos** (Black Star Records), **San, Time, Waltz for Katy, European quintet Time** y **Out of this world** (Fresh sound records), **Teatro, circo y variedades** (Nuevos medios), **Torre de babel** (Karonte), **Madrid-Barcelona Project** (Satchmo jazz), **Jazz y otras músicas de Madrid** (Músicos asociados), **Bobby Floyd, Joaquín Chacón y Noah Shaye en el Central** (Ingo música), **Live in**

Spain (Casual prod.) **Música creativa** (Música creativa prod.), **Duets** (Súmmum music), **Ode** (Karonte), **Promenade** (Errabal), etc.

Asimismo, Joaquín, desarrolla una larga carrera como pedagogo, habiendo trabajado en un gran número de centros privados de enseñanza del Jazz, Seminarios internacionales, clinics, etc., siendo en la actualidad profesor de la Escuela de Música Creativa de Madrid, y de MUSIKENE, Centro superior de música del País Vasco, donde ha editado su primer libro didáctico: "BE-BOP, el lenguaje del Jazz". También recién editado su segundo libro: "ARMONIA PARA GUITARRA ACTUAL"

De cara al 2014, publica **Skytrain** en colaboración con el pianista Mariano Díaz; disco de composiciones propias en el que participan artistas de primer nivel como **DAVE LIEBMAN, JAVIER COLINA, PERICO SAMBEAT, MARIO ROSSI, GUILLERMO MCGILL**

MARIANO DÍAZ

Cadizko Arteak eta Zientziak Unibertsitatean egin zituen piano ikasketak Mariano Díazek. Gero Susana Casacoffekin ondu zituen piano ikasketak. Geroxeago jazzak erakarri zuen eta Santiago Giacobberekin ikasiko zuen. Buenos Airesen besteak beste Lito Epumer, Javier Malosetti, Mono Fontana eta Luis Bordarekin jo du. 1993an Madril hartu zuen bizitoki.

New Yorken Bruce Barth eta Aaron Goldbergek in ikasi zuen. Era berean, eskolak jaso zituen Gerge Cables, Joanne Brakeen eta Kevin Hayes musikariaren eskutik. 1999an AIE Tete Montoliú jazz-beka eman zioten, eta Fundación Autor beka 2003an. Sociedad General de Autores (SGAE) elkarteak antolatutako Konposizioaren Biurtekoan finalista izan zen. 2005ko GRAMMY sariak jasotzeko izendatua izan zen Gerardo Nuñezen "Andando el Tiempo" diskoari esker (ACT) (Album flamenko onena).

Mariano Díazek zuzenekoetan eta grabazioetan parte hartu ohi du agertokietako artista aipagarriekin, esate baterako, Perico Sambeat, Jorge Pardo, Marc Miralta "New York Flamenco Reunion", Sonny Fortune, Frank Lazy, Pedro Iturralde, Gerardo Núñez eta Cruce de Caminos talde eta artistekin. Bere azkeneko CDa "Andando en el tiempo" (ACT), Paolo Fresu eta Perico Sambeat, Seamus Blake Qtet, Enrique Morente, Jerry Gonzalez, eta Javier Colina Cuarteto talde-artistekin grabatu du, baita Eddie Henderson Qtet taldearekin ere, besteak beste. Estatu Batuetan, Puerto Rico, Holanda (North Sea Jazz Festival 2004-2005), Frantzia, Alemania, Grezia, Portugal, Espainia, Ekialde Ertaina eta beste toki askotan eginiko biretan parte hartu du. Hainbat proiektu eta biretan laukoteko kideekin batean jardun eta gero, berez sortu zen "Barbecue Band" taldea. "Plan B" (EMI-S'Jazz) piano jotzailea buru aurkeztu dute azken lana.

Taldean eginiko lana du azken proiektua -**Skytrain**-. Lan honetan berak sortutako konposizioak aurkezten ditu Joaquín Chacón gitarra jotzailearekin batean, baina JOAQUIN CHACÓN & MARIANO DÍAZ, DAVE LIEBMAN, JAVIER COLINA, PERICO SAMBEAT, MARIO ROSSI eta GUILLERMO MCGILL bezalako musikari handiek ere parte hartu dute hartan.

Gaur egun eskolak ematen ditu "Musikene" Euskal Herriko goimailako musika ikastegian.